




Lidergoan jarraituko du Tolosak aste honetan

GARAIPENA ▶ 0-1 irabazi zion atzo Hondarribiari; lau neurketa geratzen zaizkio liga amaitzeko

GOLA ▶ Lasak egin zuen buruz, Regillagak ateratako kornerraz baliatu, eta etxeokok huts eginda ▶ 7



INIGO TERRADILLOS - IMANOL GARCIA



Gonzalez eta Ormaetxea. N. L.

ORENDAIN ▶

«Herri txiki bati buruzko liburu handi bat idatzi nahi dugu»

Herriko parrokia, udaletxe eta ermitari buruzko ikerketa lana ari dira egiten ▶ 4



Lehen jai arrastoak eskualdeko herrietan

OREXA-ASTEASU ▶ Santa Kruz jaien baitan, haur jolasak izan ziren atzo Orexan; Asteasuko elizmendi auzoan Ximonen jaitsiera izan zen ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Maiatzaren 1a: HITZAK sindikatu nagusietako kideen iritziak jaso ditu

LABeko Mujika, CC00eko Galarza eta ELAko Irazu mintzatu dira ▶ 2-3

HITZA, eskualdeko plaza
661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

SHANTI KIKOLAK
Rondilla, 11 • TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

- 20 euroko gutxieneko erosketa eginez, Laskorain ikastolako kamiseta opari. Aleak bukatu arte.
- Realaren champion-eko oroigarria eraman ezazu prezio erdian
- TAO ordaintzen dugu

UZTURRETIK ▶
AGUSTIN AMIANOAire
goxoak
baletoz

Halako batean udaberriari sartu garela esateko modua aurkitu dugula dirudi, edo hala nahi behintzat; eta lorategia txukuntzeko une aproposa iritsi denez, has gaitezen aurrera egiteko aukerak errepasatuz.

Hasteko, landarea eskuetan hartu, gozo-gozo hitz egin, eta ilusioz zein klorofilaz berpiztu denean, adarrak lurpean eta sustraiak agerian dituela landa dezakegu. Inongo bizi-itxaropenik ez du izango. Hankak lurrean eta burua tente ibiltzeko, martxa ederra! Baina hori egiten da maiz, albokoa suntsitu, bere asmoak lurrez estali, sator batek eskura ditzan.

Edo bestela, sustraiak bere lekura eramanez, landarea irmo jar dezakegu lorategian. Bizpahiru egun pasa ondoren, ustez bere lur zatiaz jabetzen ari denean, urez ondo basitu, putzutan igeri jarri arte, ito arte. Suak eta urak belaunetik beheara behar badute, zertan ureztatzen ditugu aldamenekoan ideiak estali arte?

Aldiz, lorategiko hegoaldea ondo seinalatuz, eguzki printzez gozatzeko aukera eman diezaiogeku landareari. Eta babes aukera guztiak, kaxk zorrotz batekin moztu, edozein itzal seinale kendu. Bertan kiskaliko da udako bero sargori batean. Eta ez al gaude nahiko erreta edo etsita itzal edo babes horren zain?

Baina agian landare guztiak elkarren aurrean jartzeko garaia iritsi da, biribil txukun bat osa dezaten, elkarrengandik gertu, elkar ulertzeko moduan baina elkar entzuteko prest. Ondo ureztatuko ditugu. Ez da hala? Itzala eskatzen badute, eskaini egin beharko zaie. Mineral faltan badaude, tamainan luzatuko diegu, eta denei neurri berean, inork besteen gainetik gainbegira ez dezan. Goizero jarraituko ditugu beraien mugimenduak, lore baten zain, albiste pozgarri baten premian.

Azaroko haize fina mugitik aurretik badago nahiko beta, inoiz ez omen da berandu; baina denbora ziztu bizian ezkutatzen dela ere egia da. Laharrak, osinak, uztaok edo oteak gure itxaropena zapuztu aurretik, mugitu gaitezten.



22 urte eta gero, aske utzi dute Jon Tapia zizurkildarra

ASTEKO IRUDIA ▶ Jon Tapia zizurkildarra aske utzi zuten herenegun Puerto de Santa Maria I (Cadiz, Espainia) espetxetik, 22 urte Espainiako hainbat kartzelatan preso egon eta gero. Goizean geratu zen aske Tapia, eta gauean egin zioten herritarrek lehen ongietorria Joxe Arregi plazan —argazkian—.

Jendetza bildu zen ordurako preso ohia zenari harrera beroa egiteko. Txalapartariak, dantzariak... aritu ziren, eta Tapiak berak eskerrak eman zizkien bertara bildutakoek. Bihar egingo diote omenaldi ekitaldi nagusia Joxe Arregi plazan eguerdian, eta ondoren bazkaria egingo dute. IRATXE ETXEBESTE

Langileen Eguna da gaur, Maiatzaren Lehena; eskualdeko sindikatu nagusien iritzia eskatu du HITZAK langileen egoera eta eskakizunak ezagutzeko

IRITZIA ▶ MARI MUJIKA (LAB-EKO ARDURADUNA ESKUALDEAN)

Maiatzak 1 eta Tolosaldeko egoera

Maiatzak 1 iritsi da. Langile Abertzaleen Batzordeak, LABek, hausnarketa egin nahiko luke azkenaldian Tolosaldeko bizi duen egoera sozio-ekonomikoa dela eta.

LABek aspaldi esan zuen Tolosaldeko egoera sozio-ekonomikoa kezagarria zela eta, neurriak hartzen ez baziren, egoera honek okerreko bidea hartuko zuela. Zoritxarrez, gure nahien kontra, hauxe da gertatzen ari dena.

Aipatzen dugun hau egiaztatzeko datu batzuk bakarrik emango ditugu, adierazgarri izango direlakoan:

2003/2004/2005 urteetan itxitako enpresak: Epak (Ikaztegieta), Winkler (Anoeta), Becker (Alegia) Amco (Villabona), Basagoitia (Tolosa), Tolosako Gerontologikoa.

2005ean Villabonatik Legorretara joango da La Salvadora, eta asmo berak ditu beste enpresa batek, Tolosatik beste eskualde batetara joatekoa alegia.

Datu hauek bakarrik kontutan izanda ikus dezakegu Tolosaldean oso enpresa garrantzitsuak izandakoak desagertu direla eta, okerrago dena, ehunka lanpostu galdu direla.

Hau guztiak gutxi balitz, jakin badakigu beste enpresa batzuk oso egoera kezagarrian daudela. Katastrofistak izateko asmorik gabe, guzti hau aspaldidanik ikus zitekeen

eta batzuk zein besteak, bakoitzak bere era, beste aldera begiratu dugu.

Jakina da Tolosaldearen jardun ekonomikoa papergintzaren ingurunean ibili dela eta gaur egun ere hala dabilena. LAB-ek ikusten du, arlo horretan, ez dugula aurrera egin eta gure eskualderako apustu estrategikorik egin gabe jarraitzen dugula. Emaizak argi ikus daitezke aurreko lerroetan.

Bestalde, zalantza handiak ditugu Apataerreak industriagune berriak gure eskualdeak behar dituen benetako apustu estrategikoak beteko ote dituenaren inguruan. Badakigu poligono berriak ez dituela eskualdeko arazo guztiak konponduko. Zer dugu nahiago!!! Baina, galdera hauek luzatzen ditugu: Apataerreak sortuko al du lanpostu berririk? Gaur egun ditugunak birkokatuko al ditu?

Duela hilabete batzuk Tolosaldea Garatzeko eskualdeko egoera ekonomikoki buruz egindako lan bat azaldu zen HIRZAN eta, bertan, Apataerreak hiru helburu nagusia zituela zioten:

a) Eskualdeko jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzea eta berritzea.

b) Ekoizpen sektoreen jarduera dibertsifikatzea.

c) Industria berrantolatzea.

Harritu egiten gaitu, asko, lan horretan guk goian aipatu ditugun errealitate horiei buruzko inongo aipamenik ez egitea. Ez zaigu bi-

dezkua eta egokia iruditzen. Duten larritasuna kontuan edukita, benetan harritu gaituela. Badirudi galdu diren ehunka lanpostu hauek eta gal daitezkeenak ez dituela erreferentziarik merezi Tolosaldea Garatzeko ardura-dunentzat. Jakin badakite guk aipatutakoak egia borobilak direla.

Gure ustez Tolosaldeak, orokorrean, gain-behera ekonomikoa nabaria bizi du azken urte hauetan; enpresak ixten dira eta sortzen diren berriak handi horietatik sortutakoak dira, baina enplegua sortzeko gaitasunik ez dutenak. Eta hau horrela da, azken urte hauetan oso enplegu gutxi sortu da eta, sortutakoa, gehienetan prekariora da gainera.

Badago aipatu nahiko genukeen beste datu bat. Eskualdeko enpresa nagusienetan langileen batz besteko adina gero eta altuagoa da. Beraz, nora doaz gasteak lan bila?. Argi eta garbi: beste eskualdetara. Goierrri eta Donostia aldera gehienbat. Honek beste datu objektiboa izan beharko luke eskualdeko azterketa sakon batetarako.

Gure asmoa ez da polemika faltsuetan erortzea, egoera, bere gordintasun osoz mahai gainean jartzea baizik. Erantzukizuna dugun alderdi guztiak, aspaldi egin behar genuena egiten has gaitezten, hau da, benetako azterketa sakona egin eta gure eskualdeari begira irtenbideak bilatzen hasi, berandu izan baino lehen.

IRITZIA ▶ RAMON IRAZU (ELA-KOARDURADUNA ESKUALDEA)

1886eko Chicago eta Tolosa

Tolosaldeko langileek jasaten duten egoera ez dago konparaterik 1886urtean, Chicagokoek sofritzen zutenarekin. Edo bai?

Orduan ere gizarte osoaren ondasunak gutxi batzuen eskuetan pilatuta zeuden (1), beste guztiak miseriatik atera ezinik bizi ziren bitartean. Gatazka eta greba ziren bestelako gizarte baten alde ekiteko modu bakarra.

Urte hartako maiatzaren aurreneko egunean, Chicagoko langile jendea grebara irten zen, bere lan orduen murrizketa aldarrikatu. Oso gogor eraso zien poliziak, istilu larriak egon ziren egunean zehar eta hauen aitzakiaz, grebaren buruzagi anarkistak atxilotu eta heriotz zigorra ezarri zieten. Harrezkero, Maiatzaren Lehena langile borroka sinboloa bihurtu zen.

Gauzak aldatu dira, baina ez pentsa.

Kapitala erasoan ari zaigu aspalditxo honetan langileria makurtu nahian. Egun mehatxua ez da heriotz zigorra izaten, munduko parte honetan behintzat. Baina mehatxuak egon, badaude: azpikontratazioa, prekarietatea, despidoa, deslokalizazioa... dira enpresarioen amenaza modernoak.

Badaude Tolosaldean irabazi handiak dituzten enpresak, desleketuzaren edo despidoen amenazuarekin erantzun dutenak bertako langileek bere lan baldintzak hobetu nahian hasi diren bezain pronto, adibidez lan ordu gutxiago eskatzen.

Edo-eta legeak agintzen dituenak baino

ordu gehiago lan egin eta nagusiari oso gustu txarrekoa iruditzea ordu extrak ordaintzeko eskaera: ez zara langile *fina*, ez duzu lanik egin nahi.

Gauzak aldatu dira baina ez hainbeste...

Lehen eta orain Patronalaren jarrerak berdin segitzen du. Lan orduen murrizketa ezinezkoa da... soldatek bere horretan jarraitu behar dute... Eta kontua ez da enpresak dirua galtzen ari direla, edo ez dutela ondo irabazten. Ekonomiaren hazkundera etengabekoa izan da azken hamar urte hauetan, tarta handitzen joan da, eta soldatapekoen parte, berriz, gutxitzen. Kontua da, are eta gehiago irabazi nahi dutela, langileak mehatxatuz eta estutuz.

Baina nola aurre egin, asegaiztak diren nagusi hauei?

Bi praktika mota, bi eredu daude sindikalgintzan, eta ez dago erdibiderik hemen ere. Bata bestearekin kontrajarria dago. Batzuek diote Patronalarekin eta Administrazioarekin bat eginez, elkarriketa eta itun soziala dela bidea. Hor ari dira orain-

txe bertan CCOO eta UGT enpresari eta Gobernuarekin biltzen, konpetitibitate gartzeko zein neurri hartu behar diren asmatzen... langabeziaren prestazioak jeitsi, agian?

Rafa Diezek ere esan berri du hiru partetik mahai baten inguruan eseri behar dugula, hori bai, Euskadin. ELAK ez du bertan parte hartuko, gure eredu bestelakoa da. Ikusita daukagu zer etorri den bide horretatik eta ez dugu sinesten goi mailako itunetan. Ahuleziaren ondorioa ez da kapitalari amore eman behar izatea, baizik eta elkarren artean antolatu eta borrokari ekitea, horretarako antolatuak dauden sindikatuetan.

Indarra behar dugu, irabazteko indarra, gure aurtengo leloak dioen bezala. Gora Maiatzaren Lehena!

(1) Berrehun pertsona aberatsenek, munduko populazioaren %40aren adina ondasun biltzen dituzte. P.N.U.D. *Informe sobre desarrollo humano*, 1998).

SINDIKALGINTZA

«Bi praktika mota, bi eredu daude eta ez dago erdibiderik hemen ere; bata bestearekin kontrajarria dago; indarra behar dugu»

ENPRESAK TOLOSALDEAN

«Badaude irabazi handiak izan, eta, desleketze edo despidoekin erantzun dietenak lan baldintzak hobetu nahian hasi diren langileei»

IRITZIA ▶ KERMEN GALARZA (CCOO-KO ARDURADUNA ESKUALDEAN)

Maiatzaren Lehenaz

Beste urte batez ere, Maiatzaren Lehenaren ospakizunak ehunka mila langile bilduko ditu mundu duin batean bakea, justizia eta lan duina eskatuko duen ahobatezko oihuarekin.

455 milioi lagunek merkatal eta enpresa askatasuna bera duten 25en Europa jada errealitate bihurtu denean, ekintza sindikala maila horretaraino indartu behar dugu, European gizarte lan eta ingurumen arautegietan aurrerapausoak lortu ahal izateko.

Hainbat erreibindikazio Euskadin ere, bertan Patronalak epe laburraren aldeko apostua egin du prekarizazioa, flexibilizazioa, elkarriketaren ukapena... bezalako errezeta zaharrak erabiliz, eta, externalizazioa, arrazoirik gabeko denborazkotasuna, kontratazioan iruzurra edota *ezkutu lana* errealitate ohikoegiak bihurtu dira jada.

Elkarriketa soziala denen ahotan da-

goen baina inork ikusten ez duen mamua da. Lan sailak izandako utzikeriak eta estrategia sindikal zehatz bati ezarri dion hipotekak, bertan behera utzi dute kontzertazio sozialerako mahaiaik ezartzeko edozein aukera. CCOOek elkartasunaren, partaidetzaren eta aukeren erakuntzaren aldeko apustua egiten du, langileen interesak erabakitze erantzun baterakoiek aurrera egitearen aldeko apustua, alegia.

Euskadiko Langile Komisioek negoziatio kolektiboaren ardatz sektoreetako probintzi hitzarmena izaten jarraituko dute, enpresa ituna eremu bakar duten jarreraren aurka.

Sindikatuaren ustez, sektoreetako Probintzi Hitzarmena da langileek beren aldarrikapenak hobekien defendatu ditzaketen esparrua. Gainera, badago sindikatu batek galdutako ezin duen helburua: antolatze ahalmena eta langile guztien

arteko elkartasuna. Sektoreetako Probintzi Hitzarmenak ez du enpresa itunaren aurka egiten, osagarriak baitira.

Euskadiko Langile Komisioek, lan hitzarmenen plataformetan, bizi baldintzak, soldatak, enplegu egonkorra zein kalitatezkoa, eta lan istripurik gabeko enplegu seguruagoa defendatuko dituzte, baita gazteak, emakumeak edo etorkinak ez diskriminatzea ere.

Lan hitzarmen ezak, Tolosaldeko enpresen langile askori kalte izugarriak ekarri dizkio, batez ere enpresa txiki eta ertinetan. Lantoki hauetan ez da izaten enpresa paktuak negoziatzeko behar den indarra. Batzutan errepresentazio sindikalik ez dagoelako, eta bestetan enpresariak negoziatu nahi ez dutelako edo konbenioak izan zitekeena baino eduki gutxiagorekin sinatzen direlako.

Dena den, azken urte honetan batasun sindikalak kolokan ibili dira eta zenbait hitzarmen desblokeatu dira. CCOOek euskal langileria osoarengan eragina izango duten hitzarmen kolektibo onak lortzeko gutxieneko batasun sindikalaren aldeko apustua egiten du. Sektarismoa eta batzuen lehenespun politikoaren gainetik, elkartasunezko estrategia zorroza defenditzen dugu.

Hori da gure apostua eta gure proposamena. Guztiei.

WWW.TOLOSALDEKO HITZA.INFO ▶

EAEko hauteskondeez, zer balorazio egiten duzu?

Nire ustez hauteskondeek Tolosaldeko eta Euskadiko benetako mapa islatu dute: EAJ-EAK galdu dituen botoak EHAK-k eta Aralarrek irabazi zituzte, PPK galdutakoak PSEk eta EB mantendu egin da. Denen artean konpondu eta Batasuna legalizatzeke garaia da. Orduan ikusiko dugu nor irabazten dituen udal hauteskondeak Tolosaldean.

▶ J. AGIRRE

Eta Aralar zer? Inork ez ditu kontuan hartzen, baina horiek ez eker abertzalekoak dira. Ala ez? Tolosan 500 eta Tolosaldean ia 1.200 boto. Gutxi al da? Horiek ez datoz EAJtik eta EATik.

▶ XIXIRINA

Gerontologikoa itxi dutelako, zigorra EAJri. EAJk eta alkateak merezi zuten zigorra jaso dute: ia lau mila boto galdu zituzte hemen. Gerontologikoa ixten utzi dute. Ez dute ezer egin gurea dena defenditzeko. Kontu, hitz polit eta itxurakeria asko, baino gure zaharrak etxerik gabe gelditu dira. Aurreko bi alkateek, bakoitzak bere estilora, zerbait gehiago egingo zutela seguru nago. Ez ginen orain bezala egongo.

▶ PELLO

Sekulakoa izan zen igandekoa. Gustura gelditu nintzen aspaldiko partez EHAKren emaitza onak ikusita. Inork ez zuen espero, taka, 9 parlamentario. Eta Tolosaldean aurreko emaitzak hobetu gainera, nahiz eta absentszioa handiagoa izan. Ezker abertzaleak oraindik indarra baduela! Orain daukate aukera EAJk eta EAK abertzaleen arteko akordio zabal lortzeko eta espainolei hortzak erakusteko.

▶ X. LOPEZ

Ezker abertzaleak botoak berreskuratutako. Abstentzioa handitu egin dela kontuan hartuz, argi dago Tolosan eta inguruan 2001ean EAJri utzitako botoak ezker abertzalera itzuli direla berriro. Orduko egoera berezia zen eta oraingoak, normala izan gabe, ezker abertzalearen boto indarra non dagoen erakutsi du. Eskualdean indar handia du.

▶ IZASKUN

KONTZERTAZIO SOZIALA

«Lan sailak izandako utzikeriak eta estrategia sindikal zehatz bati ezarri dion hipotekak bertan behera utzi dute edozein aukera»

LAN HITZARMENAK

«Tolosaldeko enpresen langile askori kalte izugarriak ekarri dizkio lan hitzarmen ezak, batez ere enpresa txiki eta ertinetan»

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
 Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Baliarrain. Medikua: 88 90 03
Berastegi. Medikua: 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun ebz: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Orendain. Medikua: 65 55 95
Orexa. Medikua: 68 22 28
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99
 ▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Tolosa gasa: 67 53 20
Villabona. Anbul.: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21
 ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Ugarte, Maria Teresa.
 Euskal Herria, 46 (Ibarra)
 943 67 32 74.
 Gimeno, A. Elbarren 52, (Leitza)
 112.
Bihar. Tolosa, M. I. Kale
 nagusia, 7 (Tolosa)
 943 67 06 48.
 Larraia, M.I. Elbarren 95 (Leitza)
 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publici@tolosaldeko
 hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona-aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info
Anoeta. 687 41 00 22
 anoeta@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
 ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
 leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Motorra. CBR 600 Sport
 motorra. 2001. urtekoa,
 aseguroarekin. 25.000 Km.
 Extrekin. Ondo zaindua.
 7.200 euro. 600 90 36 28. Joxe.

PAKITA ORMAETXEA ETA ERNESTO GONZALEZ ▶ AGERRE BASERRIKOAK

«Gure xedea herri txiki bati buruzko liburu handi bat idatzi ahal izatea da»

Orendaingo parrokiaren, ermitaren eta udaletxearen historiari buruzko ikerketa lana burutzen ari da Gonzalez; Pakita Ormaetxeak euskarara itzultzen du senarraren lana

NOELIA LATABURU

Bere jaioterrian ditu Pakita Ormaetxeak sustraia eta bere senarrak, Ernesto Gonzalezek, gogor jaso du herri horrekiko grinaren eragina. Donostian bizi diren arren, Orendaingo Agerre baserrian dute bizipoz senar-emazteek, bai eta elkarrekin prestatzen ari diren ikerketa lanaren inspirazio iturria ere. Hiriburutik begirada bota diote elkarrekin Orendaini, HITZARENtzat.

Hamaika herri daude Gipuz-

koan. Zerk bultzatu zintuzten Orendain aukeratzera zuen ikerketa lanerako?

Dena bitxikeria moduan sortu zen, izan ere, liburuetan Orendain bati buruz irakurri ginen, baina Nafarroan. Honek gure jakinmina piztu zuen. Honen harira, alkateak San Sebastian ermitari, udaletxeari eta parrokiari buruzko historia aztertzea eskatu zigun. Atal bat notarioen inguruan ere egin nahi genuke.

Eta nola burutu duzue dokumentazio lana?

Duela bi urte hasi zen dena eta informazio asko dugu bilduta artxibo ugari bisitatu ondoren: elizbarrutiko artxiboa, Tolosakoa eta Madrilgoa bisitatu ditugu, eta oraindik Iruñekora joatea falta da, besteak beste. Dokumentu bitxi asko lortu ditugu horrela, udaletxearen eta ermitaren eraikuntza agindu zituztenen sinadura, esaterako. **Hitzaldia ere eman zenuten. Zer esperientzia izan da?** Bion artean burutu genuen hitzaldia: Ernestok dokumentazio lana eta Pakitak itzultze eta

bideoaren muntaia egin genuen. Musika ere sartu genion bideoari. Herritar asko etorri ziren eta gela betetzea lortu genuen; gure lan guztia dokumentuetan oinarrituriko historia da eta agian hori pisutsuegia izan zen bertaratutakoentzat; gu pozik geratu ginen.

Eta liburua, noizko?

Horretan gaude. Oso zaila da baina hemendik bi urtetara ateratzea oso polita izango litzateke. Oraindik dena sailkatzeko daukagu. Izenburua, ho-beagorik proposatzen ez badigute behintzat, *Orendain, Txindokiko balkoia Ori ibaiaren gainean* izango da.

Orendain buruzko bitxikerien berri ere izango duzue.

Ikerketzen hasten zarenean gauza asko ikasten dituzu. Askok harritu gintuen jakiteak Altzoko erraldoia orendaindarrak dela amaren familiaren aldetik. Beste bitxikeria bat aipatzearen, aipatu dezakegu nola elizaren orientazioa berriro ezartzeko lanetan ari zirela, eliza erori egin zen Erramu igande batean.

Antzikerik errepikatzeak asmorik ba al duzue?

Gauzak poliki egitea gustatzen zaigu. Orain lan hau dugu eskuartean eta ondo egitea nahi genuke.

PERTSONALA ▶

Pakita Ormaetxea. ▶ Orendainen jaioa ▶ 1946ean ▶ Irakaslea ogibidez ▶ Euskarara itzuli du senarrak eginko lana.

Ernesto Gonzalez. ▶ Celanovan jaioa (Galizia) ▶ 1939ean ▶ Azterketa historikoak egiten ditu ▶ Jubilatua dago.

Txindoki ala Kontxa? Txindoki, ezbaierik gabe (bien erantzuna). **Bidaia bat?** Nik mundu erdia ezagutu dut eta zaila da esatea (Gonzalez). Herrimin handia dut, horregatik nahikoa dut asteburuetan Orendainera joatearekin (Ormaetxea).

PAKITA ORMAETXEA

«Euskarara itzuli dut senarrak eginko lana eta hitzaldirako argazkiekin eginko bideoaren muntaia egin nuen»

ERNESTO GONZALEZ

«Zaletasun bezala egiten ari naizen ikerketa hau nire emazteari zuzendutako omenaldia izatea nahi nuke»



NOELIA LATABURU

TXIRRINDULARITZA ▶

IÑIGO ASENSIO

Dagoeneko aste batzuk pasatu dira Oriako Txirrindulari Eskolako gazteak martxan jarri zirenetik.

Aldaketak izan dira itxurari dagokionez joandako denboraldiarekin alderatuz gero. Belca babesle berriaren agerpenarekin, betidaniko mailota gorde eta jantzi berriarekin ikus ditzakegu Belca-Oriako taldeko txirrindulariak. Javier Goenaga, eskolako lehendakaria pozik dago egoera berriarekin. «4 urtetarako kontratua sinatu dugu Belca-rekin. Honek betiko estatusun ekonomikoetatik ihes egiten laguntzen digu, material berrietan eta bestelakoetan inbertitzeko».

Aldaketak, dena den, ez dira itxuraren eremura mugatu. Afizonatuei dagokienez «hutsetik» hasi dira aurtengoan tolosarrak. 18-19 urteko mutilekin ari dira lanean, poliki-poliki hazten joateko. Horrela, joandako denboraldian junior mailan horrenbeste garaipen lortu zituen Mendikute, Olano, Iriarte eta Gurrutxagak osaturiko laukoteaz gain, Iñaki Jimenez tolosarra, Ander Etxeberria ibartarra, beste 7 gipuzkoar eta kataluniar batek osatzen dute taldea. Goenagaren hitzetan, «helburu nagusiak Lehendakari Txapeketa eta aurtien sortu den Etorbizuneko Espainiako Kopa izango dira». Bigarren hau Espainiako lurralde desberdinetan jokatuko diren 6 lasterketek osatzen dute eta bertan beren adineko estatu osoko txirrindulari onenekin lehiatzeko aukera izango dute Belca-ko afizonatuek. Gazteak dira oso eta horregatik, beren zuzendari Angel Balzolak, datorren asteazkenean Irunetik irtengo den Bidasoako Itzulia parte ez hartzea erabaki du. Hala ere, Lehendakari Txapelketako taldekako sailkapenean laugarren doa Oriako-Belca talde tolosarra.

Junior mailakoei dagokionez, 10 txirrindulari dira Orkatx Goenaga eta Jesus Mansoren zuzendaritzapean aritzen direnak. Egunera arteko emai-



Oriako Txirrindulari Eskolako ziklista guztiak, taldearen aurkezpenean, Belca-ko mailotarekin. HITZA

Oriako, beste denboraldi bat borobiltzeko asmoz

Azken urteetan ohitu gaituzten lorpenekin jarraitzeko asmoa dute aurtengoan ere Oriako-Belca taldekoek

tzak nahiko onak dira. Asier Oleak aurreneko hamarretan helmugaratzea lortu du zenbait lasterketan, eta Euskadiko Pista selekzioarekin Espainiako Pista Kopako probetan hartu du parte.

Kadeteak poliki-poliki doaz, datorren urteetarako beharrezkoak izango dituzten eza-gutzak bereganatzen. Horretarako, Aitor Ayerza bezalako gizon batek duen esperientzia guztiz baliagarria izango zaie, ziur. Gaztetxoenei dagokienez,

Mikel Arbillaga eta Iñaki Jimenezen eskuetan dira infantil eta alebin mailako mutilak. Egundaino, lasterketa mordoia irabazi dute Gipuzkoan zehar izaten diren zirkuitoetan.

Nesketan ere, bikain

Eskolako neskek ere bikain hasi dute aurtengo denboraldia. Azken lasterketan, Balmasedan, oso emaitza onak lortu zituzten. Irene San Sebastian bigarren izan zen kadeteen

mailan, azken urteetan erakutsi dituen progresio eta ezauzgarri fisikoak baieztatuz. Junior mailan, Maider Balerdi eta Amaia Etxedona beti bezain txukun aritu ziren, 3. eta 6. postuak erdietsiz. Elite mailan, berriz, Dina Mendikutek kirolari bikaina dela erakutsi zuen berritri, bere lehen txirrindularitza lasterketan 9. postua lortuz. Gauzak horrela, Oriakoko neskek ilusio betez ariko dira geratzen zaizkien lasterketan emaitza onak lortzeko.

ORIAKO T.E. ▶

Alebinak.

- ▶ Iñigo Alustiza
- ▶ Asier Kapa
- ▶ Imanol Eguren
- ▶ Alex Goiogna
- ▶ Unai Jauregi
- ▶ Iñaki Olaetxea

Infantilak.

- ▶ Joseba Alustiza
- ▶ Mikel Eguren
- ▶ Maikel Labandibar
- ▶ Jagoba Lazkano

Kadeteak.

- ▶ Koldo Altuna
- ▶ Iker Gil
- ▶ Jon Gorostidi
- ▶ Jon Lezea
- ▶ Francisco Javier Mateos

Mateos

- ▶ Borja Mujika
- ▶ Aitor Okanpos
- ▶ Aritz Pagola
- ▶ Patxi Rodriguez
- ▶ Andoni Usandizaga
- ▶ Ander Zubillaga

Jubenilak.

- ▶ Unai Aranburu
- ▶ Eneko Etxeberria
- ▶ Danel Leunda
- ▶ Oxel Leunda
- ▶ Matias Mendizabal
- ▶ Asier Olea
- ▶ Ander Orue
- ▶ Aritz Ugarte
- ▶ Ander Urrutibeaskoa
- ▶ Ander Zaldua

Afizionatuak.

- ▶ Mikel Almandoz
- ▶ Karlos Kuriel
- ▶ David Diegez
- ▶ Ander Etxeberria
- ▶ Jon Garate
- ▶ Eneko Gurrutxaga
- ▶ Xabier Iriarte
- ▶ Iñaki Jimenez
- ▶ Imanol Mendikute
- ▶ Unai Moliner
- ▶ Ander Mujika
- ▶ Aitor Olano
- ▶ Mikel Olano
- ▶ Gonzalo Vicente

Entrenzaileak.

- ▶ Angel Balzola
- ▶ Abraham Olano
- ▶ Jesus Manso
- ▶ Orkatx Goenaga
- ▶ Aitor Ayerza
- ▶ Javier Goenaga
- ▶ Mikel Arbillaga
- ▶ Iñaki Jimenez

TOLOSALDEA, LASKORAIN IKASTOLA, ZEURE AUKERA.
Telf.: 943 69 71 22

- Kalitatezko heziketa euskalduna
- Tolosaldeko gazteen Bigarren Hezkuntzarako ikastola.
- Unibertsitateko bide guztiak irekiko dizkizun ikastola.

Batxilergoko eskaintza zabaldu duela: **TEKNOLOGIKOA, NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK, GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK**

hirukide
www.hirukide.org
Tlf: 943 670 311

Batxilergoa
Biblate guztiak
Eleanitza
Goi mailako Zikloetara bideratutakoa
Erdi mailako zikloak
Marketaritza
Administrazio kudeaketa

OREXA - ASTEASU ▶ SANTA KRUZ JAIK

Oilarra batean, gargola bestean

Orexan ohiko oilarraren jaitsierarekin eman zieten jaiei hasiera; Asteasuko Elizmendi auzoan Ximon jaitsi zen atzo elizatik; gaztetxoentzako ekintzak izan ziren arratsaldean, batez ere, bi herri horietan

IMANOL GARCIA
IÑIGO TERRADILLOS

Herenegun hasi zen festa giroa Orexan ohiko oilarraren jaitsierarekin. Atzokoan, gaztetxoek izan ziren potagonista arratsaldean zehar. Izan ere, *Xurdirin ipotxen munduan* izeneko jolasa zegoen horientzat antolatuta. Herriko plazan partxis taula moduko bat jarririk, eta ipotxen laguntzarekin taldeka antolaturik zeuden txikiek dado erraldoia bota behar zuten; horrela, suertatzen zen zenbakiaren arabera laukitxo batera edo bestera egin behar zuten jauzi eta laukitxo horri zegokion jolasa egin behar zuten. Ederki igaro zuten txikiek, eta baita gurasoek ere haurrek egin behar zituzten bitxikeriei begira.

Gauean, berriz, musika izan zen nagusi, Harrikak, Kautak eta DJ Bullek eskaini zutena, alegia. Goizaldera, eta baratxuri-zopa hartu ondoren, kalejira abiatu ziren herritarrek baserriz baserri Gari eta Iñakiren doinuek lagundurik. Bestalde, gaur 18:00etan jubenilen eta afizionatuen pilota partidak izango dira ikusgai. 20:00etan sagardo dastaketa egingo da, 22:00etan bertso saioa eta ondoren DJ Bullen musika. Bihar 22:00etan mus txapelketa herrikoa egingo dute.

Ximonen jaitsiera

Ximonen jaitsierarekin eman zieten hasiera Asteasuko Elizmendi auzoko festei atzo. Elizako Ximon izeneko gargola bizidun bihurtu zen une batez eta paretatik jaitsi zen atarian zain zeuden haurrei gozokiak jaurtikiz. Atzoko jai giroak gaur izango du jarraipena. Goizeko mezaren eta hamaiketakoaren



Ximonen jaitsiera ikusteko jende ugari bildu zen eliza atarian. I. GARCIA



Elizmendiko kaskoan aritu ziren korrika eta bizikletan haurrak. I. GARCIA

ondoren, arratsaldean herri kirolak eta Laja eta taldearen musika emanaldia izango dira.

Atzo goizean haurrek duatloi proba egin zuten, auzoari bizikletan eta korrika birak emanaz. Bost urtekoetan Ainhoa Beldarrainek bakarrik hartu zuen parte eta, noski, bera iritsi zen lehena. 6-8 urtekoetan, mutiletan Peru Ortiz de Zarate izan zen lehena. Nesketan, Izaro Garmendia iritsi zen aurrena. 9-11 urte bitartean, Tomas Iraola, mutiletan, eta Maria Iraola, nesketan, izan ziren garaileak. 12-14 urtekoetan mutilek bakarrik hartu zuten parte eta Odei Gilek irabazi zuen. Ondoren, gurasoak ere animatu ziren izerdi pixka bat ateratzera.



Haurrek ederki igaro zuten arratsaldea joko ezberdinak egiten. I. TERRADILLOS

HITZA **txokoa** lagun

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAREN laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

TOLOSA ▶

Arrakasta handiko goiza atzoko azokan bizitakoa

Hegaztiak erosteko garaia iritsi da; barazkien eskaintza osoa ia aurkeztu dute

PABLO ALBERDI

Atzoko eguna arrakasta handikoa izan zen. Eguraldiaren laguntzarekin erosle asko gerturatu zen azokara, eta oso salmenta onak izan ziren ia postu guztietan.

Animalien postuetan bizitasuna nagusitu zen. Dirudienez, hegaztiak erosteko garaia iritsi da. Hantxe ziren oilloak, oilandak, ahateak, antzarrak, pintadak, galepe-rrak... Aipatzekoak aurtengo lehenengo babak 3,5 eurotan, zizak 24 eurotik 30 bitarte; onddoak 22 eta eta gorringoak 30 eurotan.

ATZOKO AZOKA ▶

Berdura plaza merk.	gares.
Lilia	1,20 -
Pensamientoa	1,00 -
Porrua	2,40 -
Lekak	0,35 0,40
Piparra	0,20 -

Bertako produktuak

Ziza	40,00	42,00
Ahatea	2,50	-
Babak	3,50	4,00
Arraultzak	1,30	2,10

Produktu biologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Dilistak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00

TOLOSA ▶ FUTBOLA

Tolosak lidergoan jarraitzen du Hondarribiari 0-1 irabazita

50. minutuan sartu zuen Lasak gola Regillagak ateratako kornerraz baliatuta

ERREDAKZIOA

Garaipenarekin itzuli dira Tolosa CF-koak berriro ere. Kasu honetan, Hondarribiaren aurka jokatu zuten tolosarrek eta 0-1eko emaitzarekin irabazi zieten. Beraz, Gorengoan mailako ligan lider jarraitzen du Tolosak amaitzeko lau partida baino falta ez direnean.

Tolosatik Apezetxea, Gorka, Unai, Jon, Aimar, Artola, Orue, Prados, Lasa, Regillaga eta Romero atera ziren berdegunera. Partidaren lehen erdian ez zen aukera askorik izan bi taldeen aldetik. Tolosak, bi aukera garbi izan zituen, baina ez zuen asmatu gola egiterakoan. Lasak izan zuen bat: Hondarribiako atezainaren aurrean geratu zen bakarrik, eta, hark gelditu egin zuen jaurtiketa.

Bigarren aukera Pradosek izan zuen, eta kornerekin etorri zen, hain zuzen ere. Kornerekin baliatuta Pradosi iritsi zitzaion, horrek jaurti, eta zutoinera joan zen baloia. Horrela amaitu zen lehenengo zatia, hutsean.

Bigarren erdian gogo handiagoarekin atera zen zelaira Tolosa eta joko ona erakutsi zuen. Aldaketak ere bigarren zatian egin zituzten tolosarrek; 56. minutuan Ekaitz atera zen Regillagaren ordez, 70. ean Elola Pradosen ordez, 79. ean Garagarza Artolaren ordez, 83. ean Haritz Lasaren ordez eta 87. ean Illunbe Gorkaren ordez.

Bigarren erdian aukera uga-

ri izan zuen Tolosak, eta oso garbiak izan baziren ere, bakarra baliatu zuten gola sartzeko. Atezainaren aurrean bakarrik geraturikoak asko izan ziren, baina hondarribiar atezaina fin aritu zen atzokoan eta geldiketa garrantzitsuak burutu zituen.

Golaren unea 50. minutuan iritsi zen kornerekin. Regilla-

gak atera zuen kornerra eta Pablok egin zuen errematea, baina Hondarribiko defentsa batek urrunduz baloia. Airean geratu zen eta Lasak egin ahal izan zuen errematea buruz. Kasu honetan baloia ez zuen oztoporik aurkitu atezainaren zegoen lekuraino, eta honek gelditu ahal izan ez zuenez, sarean sartu zen. 0-1eko zen.

Eta horretan mantendu zen markagailua, aukerarik izan bai, baina ez zuelako ez Tolosak ez eta Hondarribiak ere sartzen asmatu.

Tolosarrek pozik itzuli ziren etxera partida eguzkitsua eta neketsuan lortu zutenagatik, eta, batez ere, Gorengoan mailan areririk gabe lider jarraitzen dutelako.



Lehen harrera beroa Jon Tapiari Zizurkilen

ZIZURKIL/EUSKAL PRESOKA ▶ Omenaldi beroa egin zioten herenegun gauean Jon Tapiari zizurkildarrari. Herenegun goizean utzi zuten aske Puerto de Santa Maria I (Cadiz, Espainia) espetxetik 22 urte Espainiako hainbat kartzelatan

preso izan ondoren. Joxe Arregi plazan egin zioten ongietorria eta jende asko bildu zen herritarra agurtzera. Txalapartariak, dantzariak eta trikitilariak aritu ziren, eta Tapiak berak eskerrak eman zizkien guztiei. IRATXE ETXEBESTE

PLAZA ETXEBERRI
JATEXEA
Sukaldari eta kamarerak behar ditugu lehenbailehen
635 752 929 (Amala)
ZIZURKIL

Kontsu Taberna
festetako berezitasuna:
Arkume pikatxa tortilla
Arkumea
Herriko mamia
festa onak pasa !!
OREXA • Tel.: 943682154

MCNBEAUTY
MAIATZEKO IGANDE
GUZTIAK IREKITA
Aldez aurreko hitzorduarekin.
Orraztu eta makilatze
Oria 16 - behea • TOLOSA
Tel.: 943 65 58 37

OREXAKO UDALA
EUSKAL PRESOKA
EUSKAL HERRIRA
ONDO PASA
OREXAR GUZTIAK

zunbeltz
Letxu kalea, 8
TOLOSA
Tel.: 943 67 48 32
Sagardotegi, 2
LASARTE-ORIA
Tel.: 943 36 45 32
zunbeltz@euskalnet.net

ONLY FREESOUL Killah MISS SIXTY ENERGIE SKUNKFUNK

aranburu jauregia
T o l o s a
miren gonzález goikoetxea
Matxin Labaien
marrazkiak
maiatzaren 28a arte
Ordutegia: jaiegunetan eta astelehenetan izan ezik, 17:30 - 20:30
Sta. Maria plaza, 4. Tel.: (943) 67 48 11. Faxa: (943) 67 32 98

